

PRENTSA OHARRA: 2019.09.10

Asisko Urmeneta komikigilea Bruselako Fête de la BD azokan izango da

-Bueltan da Fête de la BD – Strip Feest, Europako komikigintza jaialdirik garrantzitsuenetarikoa, eta Belgikako hiriburuan burutuko da irailaren 13tik 15ra.

-Euskal kulturak ordezkaritza izango du aurten ere bertan, EUNIC-en eskutik eta Etxepare Euskal Institutua eta Euskadiren Europar Batasuneko ordezkaritzaren arteko elkarlanari esker.

Euskal komikigintza bosgarren aldiz egongo da ordezkatuta irailaren 13, 14 eta 15ean Bruselan egingo den **Fête de la BD – Strip Feest** jaialdi entzutetsuan. 2010. urtean sortutako ekitaldi honek komikiarekin loturiko hamaika tailer, hitzaldi, aurkezpen, mahai-inguru eta erakusketa eskainiko ditu berriz ere. Horrez gain, Europa osoko editoreek euren argitalpenak eta nobedadeak erakutsiko dituzte bertan. Urtero 100.000tik gora bisitari eta 250 egile baino gehiago elkartzen dira jaialdi honetan, eta aurten **Asisko Urmeneta** euskal marrazkilaria egongo da horien artean.

Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritzarekin eta **EUNIC**-ekin (European Union National Institutes for Culture, edo Europar Batasuneko Kultur Institutu Nazionalak) lankidetzan antolatu da euskal kulturaren parte hartzea; **Etxepare Euskal Institutua** 2015. urtetik baita sare horretako kide. Nazioarteko pabilioian, EUNIC-ek antolatutako standean egongo dira kokatuta euskal komikiak, sare horretako kide diren beste hainbat herrialdetako argitalpenekin batera; hala nola, Estonia, Polonia, Hungaria, Lituania, Israel, Finlandia edota Portugal. Bertaratzen direnek Euskal Herrian euskaraz zein gaztelaniaz ekoiztutako lanak aurkituko dituzte postuan; era

horretan, sektoreko editoreek, profesionalek eta publikoak orokorrean euskal komikigintza hobeto ezagutzeko aukera izango dute.

Aurten gonbidatua izan den euskal sortzailea **Asisko Urmeneta** marrazkilaria da. Urmenetak (Nafarroa, 1965) komikia, ilustrazioa, marrazki bizidunak eta karikatura landu izan ditu, besteak beste. Umorea izan du ardatz, eta hizkuntza eta dialektoak lagun. **Bi ekintzatan** hartuko du parte euskal ordezkariak, biak **irailaren 14ean**, larunbata. Batetik, goizeko 11:00etan tailer bat eskainiko du frantsesez, “Caricature, graphic design and sequential art” (Karikatura, diseinu grafikoa eta arte sekuentziala) izenburupean. Egun berean, 16:00etan, beste tailer bat eskainiko du Paulo Monteiro artista portugaldarrarekin batera: “Creating comics when you don’t know how to draw” (Komikiak egitea marrazten jakin gabe), azken hau ingelesez eta frantsesez.

Azokak iraungo duen egunetan zehar bere lan batzuk ikusgai egongo dira standaren ondoko espazio batean, EUNIC-en parte diren gainontzeko artisten lanekin batera, partehartzaile diren herrialdeetako komikigintzaren aniztasuna erakusteko asmoz. Horrez gain, azokara gonbidatuak izan diren EUNIC sareko autore guztiek azokaren egunetan zehar euren liburua sinatzeko tarte bat izango dute; Asiskoren kasuan, *AztiHitza* (2018).

Etxepare Euskal Institutua EUNIC Bruselako kide elkartu denetik kultura aniztasuna sustatzeko lanean aritu da Euskadiko Europar Batasuneko Ordezkaritzarekin batera, eta nazioarteko zenbait proiektutan hartu du parte, hala nola, mintzagai dugun Bruselako Fête de la BD komiki jaialdian edota hiri berean irailaren 26an hasiko den **Transpoesie** poesia jaialdian.

Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileak plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus